

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3051

*1670/2022 EBAZPENA, maiatzaren 27koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Lander Hijona Muruamendiaraz jaunari Arabako Unibertsitate Ospitaleko Prestakuntza Sanitario Espezializatuko Ikasketaburuaren funtzioak esleitu izana errebokatzen den, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.*

1904/2020 Ebazpenaren bidez, Lander Hijona Muruamendiaraz jaunari esleitu zitzaizkion Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Arabako Unibertsitate Ospitaleko Prestakuntza Sanitario Espezializatuko ikasketaburuaren funtzioak, lanaldiaren % 60ko dedikazioarekin.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Lander Hijona Muruamendiaraz jaunari Arabako Unibertsitate Ospitaleko Prestakuntza Sanitario Espezializatuko ikasketaburuaren funtzioak esleitu izana errebokatzeari, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko maiatzaren 29ko lanaldia bukatutakoan izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 27a.

Arabako ESIko zuzendari-gerentea,  
JOSÉ MARÍA PÉREZ RAMOS.